



Balio proposamena

O Waste enpresaren helburua gure planetari laguntzea da, aldaketa klimatikoaren eragina ahalik eta txikienak izan dadin ezin bestekoa baita gure bizimodua aldatzea. Beraz, gure enpresak ekonomia zirkularra bultzatuko du, horrela hondakinak gutxitzen lagunduz. Etxean daukagunari bigarren edota hirugarren bizitza bat ematea da helburua. Horrela, jasangarriak ez diren dendetan produktuak behin eta berriz erosi beharrean, gure dendan produktuak erosten baditugu dirua aurrezteaz gain, hondakin gutxiago sortuko dugu.

Gure balio kuantitatiboa prezio konpetiboak dira, bigarren eskuko produktuak merkeagoak izango dira, ekoizpenik ez dugulako gauzatzen.

Balio kualitatiboa berriz, produktuei bigarren bizitza bat ematea, hondakinak sortu beharrean berrerabilpena sustatzea eta elkartrukea dira.

Gainera, gure dendara produktuak ekartzean dendan bertan konstumitzeko aukera emango da, horregatik zuk zerbait ekartzen duzunaren trukean etxera produktuak eraman ditzakezu. Aldi berean, produktuak ekartzean ez bada dendako produkturik nahi balio bat emango zaio ekarritakoari eta dirua emango da, hau da "erosi" egingo dugu, noski prezio merkean.

Truke-harreman bat lortzea da gure helburua, horrela erakargarria izan dadin erosleentzat.

Azkenik, erosle finkoak lortzeko eta harremana estutzeko, astero ikastaro ezberdinak proposatuko ditugu, denda itxi eta produktu jasangarriak norberak egiteko ikastaro moduko batzuk egingo ditugu.

Beraz, gure ustean kalitatezko produktuekin eta ikastaroarekin bezeroak dendara etortzea lortuko dugu, horrela gizartea lagunduz errentagarria den enpresa bat lortuz.